– 70 m^3/h-ko ahalmeneko araztegia ama-ur, taloak garbitzeko lehen ur (% 8-15) eta ekipoa garbitzeko uretarako. Tratamendu fisiko-kimikoa da, eta malutatzaileak gehitzean eta ondoren prozesuko hondakinuren solidoak dekantatzean datza. Ekipo hauek osatzen dute araztegia: prentsa-iragazkia, lau dekantatzaile, urak biltzeko putzuak, malutatzaileak prestatzeko andelak eta kubeta-horma bat. Lau dekantatzaileak 24,5 m^3-koak dira; 2 silizeetako uretarako, eta 2 silikatoetako uretarako. Malutatze-/dekantatze-prozesuan sortzen diren lohiak ekoizte-prozesura birziklatzen dira.

– Jantokiko eta bulegoetako ur sanitarioak arazteko bi hobi septiko, jalki daitezkeen solidoak bertan edukitzeko.

Instalazioaren titularra behartuta dago kolektoreak eta arazte-instalazioak jardun-egoera egokian izatera, eta betebehar horretarako arduradun bat izendatuko du.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Evonik Silquímica SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxeta bat jarriko da isurketaren laginketa egiteko; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxeta ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko da, hala dagokionean. Halaber, isuritako prozesu-uren emaria neurtzeko sistema bat izan beharko da, uneko balioa eta metatua noiznahi ezagutzeko.

B.1.2.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiko (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, isurien kontrol-kanonari dagokion zenbatekoa hau da:

(IKK): Isurien Kontrol Kanona = V x Pu.

Pu = Po x km.

km = K2 x K3 x K4.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

Pu = Isurketen kontrolaren prezio unitarioa.

Las instalaciones de depuración o medidas correctoras de las aguas residuales constan básicamente de las siguientes actuaciones:

– Depuradora con capacidad de 70 m^3/h para las aguas madres, las primeras aguas de lavado de tortas (8-15%) y para las aguas de limpieza de equipo. El tratamiento es fisicoquímico y consiste en la adición de floculantes y decantación posterior de los sólidos, de las aguas residuales de proceso. Esta depuradora consta de los siguientes equipos: filtro prensa, cuatro decantadores, fosos de recogida de aguas, depósitos de preparación de floculantes y un muro-cubeto. Los cuatro decantadores son de 24,5 m^3 cada uno; 2 para las aguas procedentes de las sílices y 2 para las aguas procedentes de silicatos. Los fangos que se producen en el proceso de floculación-decantación son reciclados al proceso productivo.

– Dos fosas sépticas para depuración de aguas sanitarias procedentes del comedor y de las oficinas, en las que son retenidos los sólidos sedimentables.

El titular de la instalación queda obligado a mantener los colectores e instalaciones de depuración en perfecto estado de funcionamiento, debiendo designar una persona encargada de tales obligaciones.

Si se comprobase la insuficiencia de las medidas correctoras adoptadas, Evonik Silquímica, S.A. deberá ejecutar las modificaciones precisas en las instalaciones de depuración a fin de ajustar el vertido a las características autorizadas, previa comunicación a la Administración y, si procede, solicitará la correspondiente modificación de la autorización.

De acuerdo con la documentación presentada se dispondrá de una arqueta de control donde se realizará el muestreo del vertido, que deberá reunir las características necesarias para poder obtener muestras representativas de los vertidos. La arqueta estará situada en lugar de acceso directo para su inspección, cuando se estime oportuno. Además, se deberá disponer de un sistema de aforo del caudal del vertido de las aguas de proceso que permita conocer su valor instantáneo y acumulado en cualquier momento.

B.1.2.5.– Canon de Control de Vertidos.

En aplicación del artículo 113 del Texto Refundido de la Ley de Aguas y del artículo 291 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico (Real Decreto 606/2003), el importe del canon de control de vertidos es el siguiente:

(C.C.V.): Canon de Control de Vertidos = V Pu.

Pu = Pb x Cm.

Cm = C2 x C3 x C4.

Siendo.

V = Volumen del vertido autorizado (m^3/año).

Pu = Precio unitario de control de vertido.

Po = Oinarrizkoa prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

km = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K4 = ngurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: industria-erabilerako urak:

V: Bolumena	B = 2.270.300 m^3/ urte
Po: Hondakin-ura: Industriala	Po = 0,01202 - 0,03005 euro/m^3
K2: 2. klasea	K2 = 1,09
K3: Tratamendu egokia	K2 = 0,5
K4: Kategoria-eremua: II	K2 = 1,12

km = 1,09 0,5 1,12 = 0,6104.

Isurien Kontrol Kanona = 2.270.300 0,6104 0,03005 = 41.643,02 euro/urte.

Zenbateko hori ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez diren artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, administrazio eskudunak instalazioaren titularrari urte horri dagokion isurien kontrol-kanonaren likidazioa jakinaraziko dio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako autokudeaketa behar da edo balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Pb = Precio básico por m^3 establecido en función de la naturaleza del vertido.

Cm = Coeficiente de mayoración o minoración del vertido.

C2 = Coeficiente en función de las características del vertido.

C3 = Coeficiente en función del grado de contaminación del vertido.

C4 = Coeficiente en función de la calidad ambiental del medio receptor.

Vertido 1: aguas de uso industrial:

V: Volumen	*V = 2.270.300 m^3/año*
Pb: Agua residual: Industrial	*Pb = 0,01202 - 0,03005 euros/m^3*
C2: Clase 2	*C2 = 1,09*
C3: Tratamiento adecuado	*C3 = 0,5*
C4: Zona de categoría: II	*C4 = 1,12*

Cm = 1,09 x 0,5 x 1,12 = 0,6104.

Canon de Control de Vertidos = 2.270.300 x 0,6104 x 0,03005 = 41.643,02 euros/año.

Este importe permanecerá invariable mientras no se modifiquen las condiciones de la autorización de vertido o alguno de los factores que intervienen en el cálculo del canon de control de vertidos.

Una vez finalizado cada año natural, la administración competente notificará al titular de la instalación, la liquidación del canon de control de vertidos correspondiente a ese año.

B.1.3. Condiciones para garantizar la correcta gestión de los residuos producidos en la planta.

Todos los residuos generados en las instalaciones se gestionarán de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos y normativas específicas que les sean de aplicación, debiendo ser, en su caso, caracterizados con objeto de determinar su naturaleza y destino más adecuado.

Queda expresamente prohibida la mezcla de las distintas tipologías de residuos generados entre sí o con otros residuos o efluentes, segregándose los mismos desde su origen y disponiéndose de los medios de recogida y almacenamiento adecuados para evitar dichas mezclas.

En atención a los principios jerárquicos sobre gestión de residuos, todo residuo deberá ser destinado a valorización mediante su autogestión o entrega a valorizador autorizado. Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o medioambientalmente viable. Se priorizará la regeneración-reutilización frente a otras formas de valorización ya sea material o energética.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz. Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Lantarongo Udalean.

B1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak»

1. hondakina: «Olio erabiliak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/1

Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A401(1)//B0019

HEZ: 130113

Urtean sortutako kantitatea: 600 kg

Mantentze-lan orokorrak azpiprozesuan sortzen dira, makinen olioak birjartzeko lanetan.

2. hondakina; «Aerosolak (gai arriskutsuek kutsatuak)»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/2

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S-G36//C51//H3b/A401(1)//B0019

HEZ: 160504

Urtean sortutako kantitatea: 12,5 kg

Ontziak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

3. hondakina: «Gai arriskutsuek kutsatutako trapuak»

Asimismo, aquellos residuos para los que se disponga de instalaciones de tratamiento autorizadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán ser prioritariamente destinados a dichas instalaciones en atención a los principios de autosuficiencia y proximidad. Para aquellos residuos cuyo destino final previsto sea la eliminación en vertedero autorizado, la caracterización se efectuará de conformidad con lo señalado en la Decisión del Consejo 2003/33/CE, de 19 de diciembre de 2002, por la que se establecen los criterios y procedimientos de admisión de residuos en vertederos y, en su caso, las directrices que como desarrollo de la mencionada Decisión se aprueben para el País Vasco.

El área o áreas de almacenamiento de residuos dispondrán de suelos estancos. Para aquellos residuos que, por su estado físico líquido o pastoso, o por su grado de impregnación, puedan dar lugar a vertidos o generar lixiviados se dispondrá de cubetos o sistemas de recogida adecuados a fin de evitar el vertido al exterior de eventuales derrames. En el caso de residuos pulverulentos, se evitará el contacto de los residuos con el agua de lluvia o su arrastre por el viento, procediendo, en caso necesario, a su cubrición.

En caso de desaparición, pérdida o escape de residuos deberá comunicarse de forma inmediata esta circunstancia a esta Viceconsejería de Medio Ambiente y al Ayuntamiento de Lantarón.

B.1.3.1.– Residuos Peligrosos.

Los residuos peligrosos declarados por el promotor son los siguientes:

Proceso 1: «Servicios generales»

Residuo 1: «Aceites usados»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/1

Código del residuo: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A401(1)//B0019

LER:130113

Cantidad anual generada: 600 kg

Se generan en el subproceso de mantenimiento general, en el que se realizan las labores de reposición de aceites de maquinaria.

Residuo 2: «Aerosoles (contaminados por sustancias peligrosas)»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/2

Código del residuo: Q5//R13//S-G36//C51//H3b/A401(1)//B0019

LER: 160504

Cantidad anual generada: 12,5 kg

Se generan en el subproceso de recogida de envases.

Residuo 3: «Trapos contaminados por sustancias peligrosas»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/3

Hondakinaren kodea: Q5//D13//S34//C51//H5//A401(1)//B0019

HEZ: 150202

Urtean sortutako kantitatea: 50 kg

Xurgatzaileak eta ehunak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

4. hondakina: «Azido sulfurikoak bustitako sepiolita eta harea.»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/4

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C23//H5//A401(1)//B0019

HEZ: 150202

Urtean sortutako kantitatea: 1.760 kg 10 urtean behin.

Xurgatzaileak eta ehunak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira, ustekabeko isurietan.

5. hondakina: «Lanpara fluoreszenteak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/5

Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C16//H6/14/A401(1)//B0019

HEZ: 200121

Urtean sortutako kantitatea: 30 kg

Mantentze-lan orokorrak azpiprozesuan sortzen dira, lanpara fluoreszenteak birjartzeko lanetan.

6. hondakina: «Kola-hondarrak dituzten potoak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/6

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43//H14//A401(1)//B0019

HEZ: 150110

Urtean sortutako kantitatea: 12 unitate.

Zerbitzu osagarrien mantentze-lanen ondorioz sortzen da.

7. hondakina: «Botoi-pilak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/7

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6/14//A401(1)//B0019

HEZ: 160603

Urtean sortutako kantitatea: 5 kg

Zerbitzu osagarrien mantentze-lanen ondorioz sortzen da.

8. hondakina: «Botoi-erakoak ez diren pilak (metagailuak).»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/8

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C5/11/H6/14//A401(1)//B0019

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/3

Código del residuo: Q5//D13//S34//C51//H5//A401(1)//B0019

LER: 150202

Cantidad anual generada: 50 kg

Se generan en el subproceso de recogida de absorbentes y textiles.

Residuo 4: «Sepiolita y arena impregnadas en ácido sulfúrico»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/4

Código del residuo: Q5//D15//S34//C23//H5//A401(1)//B0019

LER: 150202

Cantidad anual generada: 1.760 kg cada 10 años.

Se generan en el subproceso de recogida de absorbentes y textiles en caso de derrames accidentales.

Residuo 5: «Lámparas fluorescentes»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/5

Código del residuo: Q14//R13//S40//C16//H6/14/A401(1)//B0019

LER: 200121

Cantidad anual generada: 30 kg

Se generan en el subproceso de mantenimiento general, en el que se realizan las labores de reposición de lámparas fluorescentes.

Residuo 6: «Botes restos de cola»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/6

Código del residuo: Q5//R13//S36//C43//H14//A401(1)//B0019

LER:150110

Cantidad anual generada: 12 unidades

Se genera como consecuencia del mantenimiento de los servicios auxiliares.

Residuo 7: «Pilas botón»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/7

Código del residuo: Q6//R13//S37//C16//H6/14//A401(1)//B0019

LER: 160603

Cantidad anual generada: 5 kg

Se genera como consecuencia del mantenimiento de los servicios auxiliares.

Residuo 8: «Pilas no botón (acumuladores)»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/8

Código del residuo: Q6//R13//S37//C5/11/H6/14//A401(1)//B0019

HEZ: 160602

Urtean sortutako kantitatea: 2 kg

Zerbitzu osagarrien mantentze-lanen ondorioz sortzen da.

9. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/9

Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5// A401(1)/B0019

HEZ: 150110

Urtean sortutako kantitatea: 28 kg

Ontziak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

10. hondakina: «Tresna elektriko eta elektronikoak»

Identifikazioa: A-01012228/1000004765I/1/10

Hondakinaren kodea: Q6//R13//S35-40// C16-18// H6// A401(1) //B0019

HEZ: 160213

Urtean sortutako kantitatea: 100 kg

Zerbitzu osagarrien eta bulegoen mantentze-lanen ondorioz sortzen da. Gela itxi batean apaletan gordetzen da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen du dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa ere izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar

LER: 160602

Cantidad anual generada: 2 kg

Se genera como consecuencia del mantenimiento de los servicios auxiliares.

Residuo 9: «Envases de plástico vacíos»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/9

Código del residuo: Q5//R13//S36//C41//H5// A401(1)/B0019

LER: 150110

Cantidad anual generada: 28 kg

Se generan en el subproceso de recogida de envases.

Residuo 10: «Aparatos eléctrico – electrónicos»

Identificación: A-01012228/1000004765I/1/10

Código del residuo: Q6//R13//S35-40// C16-18// H6// A401(1) //B0019

LER: 160213

Cantidad anual generada: 100 kg

Se genera como consecuencia del mantenimiento de los servicios auxiliares y oficinas. Se almacena en estanterías en un cuarto cerrado.

a) Los sistemas de recogida de residuos peligrosos deberán ser independientes para aquellas tipologías de residuos cuya posible mezcla en caso de derrames suponga aumento de su peligrosidad o mayor dificultad de gestión.

b) Los recipientes o envases conteniendo residuos peligrosos deberán observar las normas de seguridad establecidas en el artículo 13 del Real Decreto 833/1988, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, de 14 de mayo, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos, y permanecerán cerrados hasta su entrega a gestor en evitación de cualquier pérdida de contenido por derrame o evaporación.

c) Los recipientes o envases a que se refiere el punto anterior deberán estar etiquetados de forma clara, legible e indeleble y en base a las instrucciones señaladas a tal efecto en el artículo 14 del Real Decreto 833/1988 de 20 de julio.

d) El tiempo de almacenamiento de los residuos peligrosos no podrá exceder de 6 meses.

e) Previamente al traslado de los residuos hasta las instalaciones del gestor autorizado deberá disponerse, como requisito imprescindible, de compromiso documental de aceptación por parte de dicho gestor autorizado, en el que se fijen las condiciones de ésta, verificando las características del residuo a tratar y la adecuación a su autorización administrativa. Dicho documento se remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente antes de la primera evacuación del residuo,

izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Evonik Silquímica SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Evonik Silquímica SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, ezarritako aurreikuspenak bete beharko ditu Evonik Silquímica SA enpresak.

j) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Evonik Silquímica SA enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Evonik Silquímica SA enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

y en su caso, previamente al envío del mismo a un nuevo gestor de residuos. En caso necesario, deberá realizarse una caracterización detallada, al objeto de acreditar la idoneidad del tratamiento propuesto. En su caso, deberá justificarse que la vía de gestión propuesta se ajusta a los principios jerárquicos sobre gestión de residuos recogidos en la presente Resolución.

f) Con anterioridad al traslado de los residuos peligrosos y una vez efectuada, en su caso, la notificación previa de dicho traslado con la antelación reglamentariamente establecida, deberá procederse a cumplimentar el documento de control y seguimiento, una fracción del cual deberá ser entregada al transportista como acompañamiento de la carga desde su origen al destino previsto. Evonik Silquímica, S.A. deberá registrar y conservar en archivo los documentos de aceptación y documentos de control y seguimiento o documento oficial equivalente, durante un periodo no inferior a cinco años.

g) Deberá verificarse que el transporte a utilizar para el traslado de los residuos peligrosos hasta las instalaciones del gestor autorizado reúne los requisitos exigidos por la legislación vigente para el transporte de este tipo de mercancías.

h) Evonik Silquímica, S.A. deberá gestionar el aceite usado generado de conformidad con el Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, por el que se regula la gestión de los aceites industriales usados.

i) En tanto en cuanto no se proceda a la implantación de un sistema integrado de gestión autorizado en los términos previstos en el mencionado Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, Evonik Silquímica, S.A. deberá dar cumplimiento a las previsiones contempladas en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

j) Los residuos de equipos eléctricos y electrónicos, entre los que se incluyen los tubos fluorescentes, se gestionarán de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 208/2005, de 25 de febrero, sobre aparatos eléctricos y electrónicos y la gestión de sus residuos.

k) Evonik Silquímica, S.A. como poseedor de aparatos que contienen PCB, deberá cumplir los requisitos que para su correcta gestión se señalan en el Real Decreto 1378/1999, de 27 de agosto, por el que se establecen medidas para la eliminación y gestión de los policlorobifenilos, policloroterfenilos y aparatos que los contengan, y su posterior modificación mediante Real Decreto 228/2006, de 24 de febrero, y, en tal sentido, remitir la declaración de posesión de PCB correspondiente al último ejercicio. La obligación de presentar con carácter anual la declaración regulada en el mencionado Real Decreto se mantendrá en tanto en cuanto Evonik Silquímica, S.A. sea poseedor de aparatos conteniendo PCB.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Evonik Silquímica SA enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

o) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Evonik Silquímica SA enpresak 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua), amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

l) En la medida en que Evonik Silquímica, S.A., sea poseedor de las sustancias usadas definidas en el Reglamento (CE) n.º 2037/2000 del Parlamento Europeo y del Consejo de 29 de junio de 2000 sobre las sustancias que agotan la capa de ozono, estas se recuperarán para su destrucción por medios técnicos aprobados por las partes o mediante cualquier otro medio técnico de destrucción aceptable desde el punto de vista del medio ambiente, o con fines de reciclado o regeneración durante las operaciones de revisión y mantenimiento de los aparatos o antes de su desmontaje o destrucción.

m) Se llevará un registro, en el que se hará constar la cantidad, naturaleza, código de identificación, origen, métodos, y lugares de tratamiento, así como las fechas de generación y cesión de todos los residuos, frecuencia de recogida y medio de transporte en cumplimiento de lo establecido en el artículo 17 del Real Decreto 833/1988, de 20 de julio y su modificación posterior mediante el Real Decreto 952/1997, de 20 de julio. Semestralmente se remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente copia de este registro de control.

n) Los documentos referenciados en los apartados e), f) (cuando los gestores radiquen en territorio de la CAPV), y m) de este apartado serán enviados a la Viceconsejería de Medio Ambiente preferentemente mediante transacción electrónica a través de la versión entidades del Sistema IKS-L03.

o) En caso de detectarse la presencia de residuos que contengan amianto, Evonik Silquímica, S.A. deberá dar cumplimiento a las exigencias establecidas en el Real Decreto 108/1991 (artículo 3) para la prevención y reducción de la contaminación del medio ambiente producida por el amianto. Asimismo las operaciones de manipulación para su gestión de los residuos que contengan amianto, se realizarán de acuerdo a las exigencias establecidas en el Real Decreto 396/2006 por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud aplicables a los trabajos con riesgo de exposición al amianto.

B.1.3.2.– Residuos no Peligrosos.

Los residuos no peligrosos declarados por el promotor son los siguientes:

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg/urtea)
Obra-hondakinak	170107	Mantentze-lanak	4.820
Putzu septikoen lohiak	200304	Ur beltzak	11.000
Plastikoak	150102	Ekoizpeneko edo bulegoko enbalajea	3.160
Prentsa-iragazkien plakak	150203	Mantentze-lanak	18.720
Papera eta kartoia	150101	Ekoizpeneko edo bulegoko enbalajea	6.080
Txatarra	160117	Mantentze-lanak	40.220

Hondakinaren izena	HEZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg/urtea)
Hondar-silizea	010499	Instalazioak garbitzea	noizean behin
Zura	200138	Fabrikazioa	8.620
Gomazko bandak	200133	Mantentze-lanak	0
Inprimatzeko zintak eta kartutxoak	080318	Bulegoa	28
Fax eta fotokopiagailurako tonerra	080318	Bulegoa	noizean behin
Garbiketako hondarrak	200301	Zerbitzu orokorrak (instalazioen mantentze-lanak)	540
Iragazkien mahukak	150203	Mantentze-lanak	
Beira-zuntza	200301	Zerbitzu orokorrak (instalazioen mantentze-lanak)	

Nombre del Residuo	*Código LER*	*Proceso asociado*	*Producción estimada (kg/año)*
Escombros	*170107*	*Mantenimiento*	*4.820*
Lodos de fosas sépticas	*200304*	*Aguas fecales*	*11.000*
Plásticos	*150102*	*Embalaje en producción y oficina*	*3.160*
Placas de filtros prensa	*150203*	*Mantenimiento*	*18.720*
Papel y cartón	*150101*	*Embalaje en producción y oficina*	*6.080*
Chatarra	*160117*	*Mantenimiento*	*40.220*
Sílice residual	*010499*	*Limpieza de instalaciones*	*puntual*
Madera	*200138*	*Fabricación*	*8.620*
Bandas de goma	*200133*	*Mantenimiento*	*0*
Cintas y cartuchos de impresión	*080318*	*Oficina*	*28*
Toner de fax y fotocopiadora	*080318*	*Oficina*	*puntual*
Restos de limpieza	*200301*	*Servicios generales (mantenimiento de las instalaciones)*	*540*
Mangas de filtro	*150203*	*Mantenimiento*	
Fibra de vidrio	*200301*	*Servicios generales(mantenimiento de las instalaciones)*	

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek 2 urtez gorde ahal izango dira gehienez.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarriz-

a) Los envases usados y residuos de envases deberán ser entregados en condiciones adecuadas de separación por materiales a un agente económico (proveedor) para su reutilización en el caso de los envases usados, o a un recuperador, reciclador o valorizador autorizado para el caso de residuos de envases.

b) El periodo de almacenamiento de estos residuos no podrá exceder de 2 años.

c) Con carácter general todo residuo con anterioridad a su evacuación deberá contar con un documento de aceptación emitido por gestor autorizado que detalle las condiciones de dicha aceptación. Se remitirá copia de este documento a la Viceconsejería de Medio Ambiente a fin de comprobar la adecua-

ko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Evonik Silquímica SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Evonik Silquímica SA enpresak honako informazioa aurkeztu beharko du: beharrezko neurriak hartuko ditu lurzorua babesteko, eta bereziki disoluzioa egiten den guneko lurzorua berritu, hori kutsatu ahal izatea saihesteko; eta hondakinak biltegiratzeko gunea egokitu, lurzoruaren kutsadura saihestuko duen kubeta bat jarriz.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango

ción de la gestión propuesta y el cumplimiento de lo establecido en los principios generales de esta Resolución. En su caso, deberá justificarse que la vía de gestión propuesta se ajusta a los principios jerárquicos sobre gestión de residuos recogidos en la presente Resolución. Evonik Silquímica, S.A. deberá registrar y conservar en archivo los documentos de aceptación, o documento oficial equivalente, cuando éstos resulten preceptivos, durante un periodo no inferior a cinco años.

d) Asimismo, de conformidad con el Decreto 423/1994, de 2 de noviembre, sobre gestión de residuos inertes e inertizados, con anterioridad al traslado de los residuos no peligrosos destinados a su depósito en vertedero autorizado, deberá cumplimentarse el correspondiente documento de seguimiento y control. Dichos documentos deberán conservarse durante un período de cinco años.

e) Se llevará un registro, en el que se hará constar la cantidad, naturaleza, código de identificación, origen, métodos, y lugares de tratamiento, así como las fechas de generación y cesión de todos los residuos, frecuencia de recogida y medio de transporte. Anualmente se remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente copia de este registro de control.

f) Los documentos referenciados en los apartados c), d) (cuando los gestores radiquen en territorio de la CAPV), y e) de este apartado serán enviados a la Viceconsejería de Medio Ambiente preferentemente mediante transacción electrónica a través de la versión entidades del Sistema IKS-L03.

B.1.4.– Condiciones en relación con la protección del suelo.

De conformidad con el informe preliminar de situación del suelo presentado en cumplimiento de las obligaciones establecidas en el Real Decreto 9/2005 de 14 de enero, y la Ley 1/2005, de 4 de febrero, y atendiendo a las recomendaciones en él contenidas, Evonik Silquímica, S.A., deberá adoptar las medidas necesarias para asegurar la protección del suelo y en particular renovar el suelo del área donde se realiza la disolución para evitar una potencial contaminación del mismo y acondicionar la zona destinada al almacenamiento de residuos, poniendo un cubeto que evitará la contaminación del suelo.

B.1.5.– Condiciones en relación con el ruido.

Se instalarán todas las medidas necesarias para que no se superen los siguientes niveles:

a) La actividad se adecuará de modo que el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 40 dB(A), medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 08:00 y 22:00 horas con las ventanas y puertas cerradas, ni los 45 dB(A) en valores máximos.

b) La actividad se adecuará de modo que el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá

da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) INGURUMENA ZAINTZEKO PROGRAMA.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Evonik Silquímica SA, enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

superar en ningún momento los 30 dB(A), medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 22:00 y 08:00 horas, con las puertas y ventanas cerradas, ni los 35 dB(A) en valores máximos.

c) Asimismo, no deberá transmitirse un ruido superior a 60 dB(A) en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, medidos en el cierre exterior del recinto industrial.

d) Las actividades de carga y descarga, así como el transporte de materiales en camiones, debe realizarse de manera que el ruido producido no suponga un incremento importante en el nivel ambiental de las zonas de mayor sensibilidad acústica.

C) Programa de Vigilancia Ambiental.

El programa de vigilancia ambiental deberá ejecutarse de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor y con lo establecido en los apartados siguientes:

C.1.– Control de las emisiones a la atmósfera.

a) Evonik Silquímica, S.A., deberá realizar el control de las emisiones de acuerdo con la siguiente información:

Fokua	Erregistro-liburuaren izena	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	01-4765-01	Prezipitazio-askak	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
			Laino azidoak (SO3)	
2	01-4765-02	Lehorgailu birakaria	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
3	01-4765-03	Büttner lehorgailua	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
			Karbono-monoxidoa (CO)	
			Nitrogeno oxidoak, NOx)	
			Sufre dioxidoa (SO2)	
			Opakutasuna	
4	01-4765-04	Errota pendularra	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
5	01-4765-05	Alpine errota	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
6	01-4765-06	Pikortatze-instalazioa	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek
7	01-4765-07	Ontziratze-instalazioa	Partikula solidoak (PS)	Urtero KEB batek

Foco	Denominación libro registro	Denominación Foco	Parámetros de medición	Frecuencia de controles
1	01-4765-01	Tinas de precipitación	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)
			Nieblas ácidas (SO3)	
2	01-4765-02	Secador rotativo	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)
3	01-4765-03	Secador Büttner	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)
			Monóxido de carbono (CO)	
			Óxidos de nitrógeno (NOx)	
			Dióxido de azufre (SO2)	
			Opacidad	
4	01-4765-04	Molino pendular	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)
5	01-4765-05	Molino Alpine	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)

Foco	Denominación libro registro	Denominación Foco	Parámetros de medición	Frecuencia de controles
6	01-4765-06	Instalación de granulación	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)
7	01-4765-07	Instalación de envasado	Partículas sólidas (PS)	Anual (OCA)

b) Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Kontrol Erakunde Baimendu (KEB) batek egin behar ditu (gutxienez ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostena, Ingurumen Sailburuordetzaren «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaio. Dena dela, isuriaren kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren argibide teknikoek eskatutako baldintza guztiak bete behar dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Parametroen neurketak ez izatekotan, edo ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, neurketak berriz egin beharko dira. Atmosferara egiten diren isurketen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du.

Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak (arazketa-sistemena barne, hala nola mahukak aldatzea), garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako intzidentziak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

b) Todas las mediciones señaladas en el apartado anterior deberán ser realizadas por una Organismo de Control Autorizado (OCA) (tres medidas de una hora cada una, como mínimo, medidos a lo largo de ocho horas) y los informes correspondientes a dichas mediciones periódicas deberán ajustarse a lo establecido en el «Informe mínimo de OCA» emitido por esta Viceconsejería de Medio Ambiente. En todo caso, los controles y las condiciones de emisión deberán cumplir con todos los requisitos exigidos en las instrucciones técnicas de la Viceconsejería de Medio Ambiente.

c) Se deberán enviar los informes OCA de las mediciones de todos los parámetros requeridos anteriormente. En el caso de que no se dispongan mediciones de los parámetros o las mediciones de dichos parámetros estén realizadas con una antigüedad superior a la frecuencia de controles establecida en esta resolución se deberán realizar nuevas mediciones. Los consiguientes controles de las emisiones a la atmósfera se realizarán con la frecuencia indicada respecto de la última medición realizada.

C.1.1.– Registro de los resultados obtenidos.

Se llevará a cabo, con documentación actualizada, un registro en soporte informático o, en su defecto, en soporte papel, que recoja el contenido que se establece en el artículo 33 de la Orden de 18 de octubre de 1976, de prevención y corrección de la contaminación atmosférica de origen industrial.

En dicho registro se plasmarán los resultados de las mediciones realizadas las operaciones de mantenimiento (incluidas las de los sistemas de depuración como por ejemplo los cambios de mangas), limpieza, revisiones periódicas, paradas por avería, comprobaciones, incidencias de cualquier tipo, etc. esta documentación se mantendrá al día y estará a disposición de los inspectores ambientales.

C.2.– Control de la calidad del agua de vertido.

a) De acuerdo con la documentación presentada por el promotor, se realizarán las siguientes analíticas:

Isurketa-puntua	Ingurune hartzailea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Ebro ibaia	Prozesuko eta garbiketako urak	X: 501100 Y: 4729550	Emaria, pH-a, solido esekiak, OEK eta SO4	Hilero	Kanpokoa
		Garbiketako urak			Egunero	Barnekoa
		Hozteko urak			Hiru hilero	
		Ur sanitarioak				

Punto de vertido	*Medio receptor*	*Flujo a controlar*	*Coordenadas UTM de la arqueta de control*	*Parámetros de Medición*	*Frecuencia de controles*	*Tipo de control*
1	*Río Ebro*	*Aguas de proceso y limpieza*	*X: 501100* *Y: 4729550*	*Caudal, pH, Sólidos en suspensión, DQO y SO4*	*Mensual*	*Externo*
		Aguas de limpieza			*Diario*	*Interno*
		Aguas de refrigeración			*Trimestral*	
		Aguas sanitarias				

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Titularrak adierazpen bat igorriko du urtero, lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak isurketan ba ote dauden dioe-

b) Cada control externo, tanto la toma de muestras como posterior analisis, será realizado y certificado por una «Entidad Colaboradora» (artículo 255 del Reglamento del Dominio Publico Hidráulico) y se llevará a cabo sobre cada uno de los parámetros mencionados en los puntos anteriores. El promotor deberá de presentar analítica de al menos una muestra reciente de cada uno de los puntos de vertido, muestra que deberá ser compuesta de 24 horas proporcional al caudal, o en su caso muestra puntual representativa.

